

TRAFIKOA, ETA TRAFIKO, IBILGAILU MOTORDUNEN ZIRKULAZIO ETA BIDE SEGURTASUNAREN ARLOAN UDALAREN ZEHAPEN-AHALMENA ERABILTZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Eskumena

Honako Ordenantza hau ematen da Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak Trafiko eta Zirkulazioaren arloan Udalarari ematen dion eskumenaren arabera, baita Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikuluduna onetsi zuen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege-Dekretuak ezarritakoa oinarritzat hartuta ere.

2. artikulua.- Arautzearen xedea.

1.- Ordenantza honen xedea herriko bide eta zeharbideen erabilera arautzea da, trafikoari loturik, eta orobat hura antolatu, zaindu eta kontrolatzea, arau-urratzeak salatu eta zigortzea, ibilgailuak ibilgetzeko kautelazko neurriak hartzea, horiek bide publikotik kentzea, ibilgailuak gordailura eramatea, baita ibilgailu abandonatuak arautzea ere.

2.- Era berean, gai honi dagozkion prozedurazko xedapen guztiak testu bakar batean bildu nahi dira, interes orokorrekoa izan daitekeen testu bat eskueran izatearren.

3. artikulua.- Aplikazio lur-eremua.

1.- Ordenantza honen aginduak Basauriko udal-mugarteko herriko bide eta zeharbide guztietan aplikatu ahal izango dira, betiere martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege-Dekretuak eta haren erregelamenduzko xedapenek ezartzen dutenari kalterik egin gabe.

2.- Honako ordenantza honek derrigortuko ditu alde batetik, herri barruko zein herriz kanpoko bide eta lursail publikoen titularrak eta erabiltzaileak, baldin eta toki horien eskumena Udalarari laga bazaio eta bertatik zirkulatze moduan badaude eta beste aldetik, bide eta lursail pribatuenak, baldin eta erabiltzaile talde zehaztugabe batek erabiltzen baditu horiek.

3.- Ondoko hauek joko dira bideen erabiltzailetzat: oinezkoak, gidariak, txirrindulariak eta bide gainean edo hura erabilia ekintza ezberdinak egingo lituzkeen beste edozein pertsona, azken horrek udalaren baimena beharko lukeelarik horretarako.

4. artikulua.- Aginpideak.

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikuluduna onetsi zuen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege-Dekretuak 7. artikuluan ezartzen duenaren arabera, ondoko aginpide hauek esleitu zaizkio udalari:

a) Bere titulartasunpeko herriko bideetan trafikoa antolatu eta kontrolatzea, bide horiek udaltzainen bidez zaintzea, horietan egiten diren arau-urratzeak salatzea eta zehapenak ezartzea.

b) Herri barruko bideen erabilerak Zirkulazioko Udal-Ordenantzaren bidez arautzea; horrela bada, aparkalekuak erabiltzaile guztien artean berdintasunez banatzea batetik, eta ibilgailuen trafikoak izan behar duen arintasuna eta kaleak oinezkoek erabiltzea bestetik, bateragarri eginez. Era berean, aparkaldi mugaturako neurriak ezartzea, aparkalekuen txandakatzea bermatzeko helburuarekin, arreta berezia jarritz mugitzeko ahalmena gutxitua duten eta ibilgailuak erabiltzen dituzten pertsona ezinduen premiei, betiere gizartean integra daitezen xedearekin.

c) Ibilgailuak herriko bideetan ibilgetzea, denbora-muga duten tokietan aparkatzeko baimena ematen duen titulua ez dutenean, edo emandako baimena gainditzen dutenean, harik eta gidaria identifikatzea lortzen den arte.

d) Ibilgailuak herriko bideetatik kentzea eta ondoren haiek gordailura eramatea, zirkulazioa oztopatzen edo eragozten dutenean edota harentzako arriskua dakartenean edo aparkaldi mugatuko tokietan modu desegokian aparkatuta daudenean. Ibilgetze hori, artikulua honetan ibilgailua bertan geldiarazteko ezarritako baldintzetan egingo da.

e) Era berean, ibilgailuak herriz kanpoko bideetatik kentzea eta ondoren horiek gordailura eramatea, erregelamendu bidez zehazturiko kasu eta baldintzetan.

f) Kiroi-probetarako baimena ematea, osorik eta soilik hirigunean igarotzen direnean, zeharbideak salbuetsita.

g) Erregelamendu bidez ezarritako probak egitea, bideko zirkulazioaren segurtasuna zaintzea eta kontrolatzea esleiturik daukan bide publikoetan zehar zirkulatzen duten gidarien alkohol, estupefaziante, psikotropiko edo estimulagarri bidezko intoxikazioaren maila zehazteko.

h) Beharrezkoa denean, herriko bideak ixtea.

5. artikulua.- Trafikoa antolatu eta kontrolatzeko neurriak.

Aurreko artikuluan seinalaturiko aginpideen arabera, udaleko agintariek ondoko hau egin ahal izango dute:

a) Trafikoa antolatzeko egokitzat jotzen dituzten neurriak hartu, ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioa, zamalanak eta pertsonen edo salgaien garraioa aldatuz, murriztuz edo debekatuz. Horretarako, behin-behinekotzat ipini edo kendu ahal izango ditu beharrezko diren seinaleak, zirkulazioaren segurtasuna eta arintasuna bermatze aldera.

b) Aldi baterako debekatu ibilgailuak aparkatzea zenbait gunetan, baldin eta gune horiek okupatu behar badira beroriek konpondu, seinalezatu, mantendu edo garbitze lanetarako edota behar den baimena duten ekitaldietarako.

c) Oinezkoentzako eremuak ezarri. Horretarako, ibilgailuen aparkatzea, abiadura eta zirkulazioa erregelatuko duten arauak emango ditu.

II. TITULUA. - ZIRKULAZIOAREN ANTOLAMENDUA

6. artikulua.- Lehentasuneko bideak

1.- Zirkulazioari loturik, lehentasuneko bidetzat hartuko dira, ibilgailuen joan-etorriagatik, ibilbideengatik, kokapenagatik eta beste bideekiko komunikazioagatik ezinbesteko gertatzen direnak hirigunearen barruan zirkulazioa banatzeko.

2.- Lehentasuneko bidetzat joko dira ondoko kale hauek:

-Agirre Lehendakaria

-Kareaga Goikoa

-Nagusia

-Gernika

3.- Udalak, Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez, aldatu edo gehitu ahal izango ditu honako Ordenantza honetan lehentasunezkoztat jo diren bideak.

7. artikulua.- Aparkatzeko debekua.

1.- Debekaturik dago bide publikoetan ondokoak aparkatzea: motordun ibilgailuetatik bereizitako atoiak, autobusak, traktoreak, karabanak, autokarabanak eta gehienezko pisu baimendua 3.500 kg-tik gorakoa duten ibilgailuak, salbu eta horretarako baimena duten barruti, leku eta denboraldietan, edo zamalanak egiteko, baimendutako ordu-tarteen barruan.

2.- Ziklomotorrak eta motozikletak hiru metro zabalera espaloietan aparkatu ahal izango dira, galtzadarekiko paralelo eta bien arteko distantzia 50 zentimetrokoa izango delarik, baldin eta oinezkoen, bizikleten, haurrentzako kotxeen, erosketetarako orgen eta abarren joan-etorria larriki oztopatzen ez bada.

Aurreko atalari jarraiki aparkaturiko motozikletek 2 metroko distantzia gutxienez utzi beharko dute seinaleztaturiko oinezkoentzako pasabideetara edo garraio publikoen geralekuetara.

Ibilgailua espaloiarene gainean aparkatzerakoan, berori bultzatu egingo da motorra gelditu eta eserlekua hutsik daudela.

Ibilgailua galtzadan aparkatzerakoan, berori zeharka edo erdizeharka utziko da eta gehienez 1,50 metroko zabalera okupatu ahal izango da.

Guztiz debekaturik dago ziklomotorrak edo motozikletak oinezkoentzat erreserbatutako kale-zatietan aparkatzea.

3.- Debekaturik dago beraien trakzio-ibilgailuetatik bereizitako atoiak eta autokarabanak aparkatzea udalerraren barruan.

8. artikulua.- Zirkulazioa mugatzea.

1.- Udallerri osoan debekaturik dago 40 km/h-tik gorako abiaduran zirkulatzea. Dena den, udaleko agintariek zenbait bidek ezaugarri bereziak dituztela ikusita, abiadura-muga txikiagoak edo handiagoak ezar ditzakete horietan.

2.- Oro har, debekaturik dute hirigunean barrena zirkulatzea gehienezko pisu baimendua 10.000 kg-tik gorakoa duten ibilgailuek edo neurri hauek gainditzen dituztenek: 10 metro luzera, 2,5 metro zabalera eta 3,5 metro altuera.

3.- Mugatze horien barruan sartuak daude ondoko bide-zati hauek:

- a) Agirre Lehendakaritik zeharreko sarrera.
- b) Kareaga Goikoatik zeharreko sarrera.
- c) Baskonia zubitik zeharreko sarrera, lehenengo biribilgunetik aurrera
- d) Urbitik zeharreko sarrera, Gudarienetik aurrera
- e) Gernikatik zeharreko sarrera, Nekazarien Plazatik aurrera

4.- Murrizte horietatik salbuetsirik geldituko dira udalerriaren barruan linea erregular edo geraleku baimendua duten autobusak.

5.- Salbuetsitako guneetan, seinale egokiak ipiniko dira, gidariak arau murriztaile horietaz informatzeko.

6.- Ezaugarriak, komunikazioak, kokalekua, egin beharreko lanak edota bestelako zirkunstantziak direla eta, salbuespen modura, bide horietan zirkulatzeko baimena eman ahal izango zaie artikulu honetan seinalaturiko pisuak eta neurriak gainditzen dituzten ibilgailuei.

7.- Baldin eta zirkunstantzia horiek direla eta banakako baimena emango balitzaio, ibilgailuaren gidariak, udaltzainekin elkarlanean, behar diren neurri guztiak hartuko lituzke, bide publikoen gainerako erabiltzaileentzat arriskurik edo kalterik ez dela izango bermatzeko. Edozein kasutan ere, baimenaren titularra izango da salbuespenez baimenduriko zirkulazio horretatik etor litezkeen kalteen erantzule.

8.- Aurreko atalean araturiko baimenetan ondoko hau agertuko da:

- Baimenaren balio-denbora.
- Ibilgailuak egin beharko duen ibilbide zehatza.
- Hartu beharko dituen segurtasun-neurriak.
- Zein ordu-tartetan zirkulatu, maniobrak egin edo aparkatu beharko duen.
- Bide publikoko segurtasuna bermatzeko beharrezkoak liratekeen ohar guztiak.

9. artikulua.- Zama lanak

1.- Salgaiak bide publikoan kargatu eta deskargatu behar direnean, Udalak horretarako mugatu eta seinalaturiko guneetan egin beharko da.

2.- Gune erreserbatuetatik kanpo kargatzea eta deskargatzea baimenduko da soilik gune hurbilenetik biltegiratzeko tokiraino dagoen distantziagatik lan hori neketsua edo arriskutsua gerta badadi.

Edozein kasutan ere, zamalanak aparkatzeko arauak betez egingo dira, bide publikoaren gainerako erabiltzaileei arriskurik edo kalterik ez ekartzeko moduan.

3.- Gune seinalatuetan erreserbaturiko ordu-tarteak gorabehera, zamalanak ezingo dira 8:00ak baino lehen hasi, ezta 20:00etatik aurrera jarraitu ere, arrazoiak ikusita, baimen berezia eman ez bada behintzat.

4.- Aurreko atalean xedaturikoa ez da aplikatuko salgai arriskutsuen zamalanetarako, izan ere, azken horiek ezingo dira ez 20:00ak baino lehenago ez 8:00etatik aurrera egin, eta, edozein kasutan ere, horretarako berriazko baimena eduki beharko dute.

III. TITULUA. - IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENTZEA ETA HORIEK IBILGETZEA

10. artikulua. Ibilgailua bide publikotik kentzea

1.- Egin behar duenak egiten ez badu, ibilgailua bidetik kentzeari eta agintaritza eskudunak izendatzen duen lekuan gordetzeari ekin ahal izango zaio ondoko kasuotan:

a) Arriskurik baldin badu, ibilgailu edo oinezkoen zirkulazioari edo zerbitzu publikoren baten funtzionamenduari nahasbide larririk sortzen badio edo ondare publikoa hondatzen badu, bai eta bidean abandonatuta dagoela pentsa daitekeenean ere.

Arrazoi bidez usteko da abandonaturik dagoela ondoko kasu honetan:

- Bi hilabete baino gehiago igarotzen direnean, agintaritza eskudunak ibilgailua bide publikotik kendu eta gordailura eraman dutenetik.

Kasu horretan, bai eta, abandonaturik egotearen itxura izan arren, matrikulazioko plaka mantentzen duten edo haien titularra identifikatzeko modua ematen duten beste edonolako bistako seinalerik edo markarik duten ibilgailuen kasuan ere, behin bidezko epeak igaro ondoren, titularrari agindeia egingo zaio, 15 eguneko epean ibilgailua gordailutik eraman dezan

eta ohartaraziko zaio horrela egin ezean, hiriko hondakin solidotzat hartuko dela.

- Leku berean aparkaturik egoten denean hilabete baino gehiagoz eta bere kabuz mugitzea ezinezko egiten dioten narriadurak ageri dituztenean edo matrikulazioko plakak falta zaizkionean.

Kasu horretan, hiriko hondakin solidotzat hartuko da, ingurumenari buruzko araudiak xedatzen duenaren arabera.

b) Istripuren baten ondorioz martxan jartzerik ez duenean.

c) Ibilgailuaren beraren akatsen ondorioz ibilgetua izan denean.

d) Ibilgailua ibilgetuta dagoelarik, arau-urratzaileak ohiko egoitza Espainiako lurraldean ez duenean eta isunaren zenbatekoa ordaintzeari edo ordainketa bermatzeari ezezkoa ematen dionean.

e) Ibilgailu bat udaleko agintariak ordu-tarte mugatuko aparkaleku gisa prestatuak dituzten tokietan baimena ematen dion adierazgarria ezarri gabe aparkaturiko egoten denean, edota Udal Ordenantzan ezarritakoaren arabera ordainduriko denboraren bikoitza gainditzen denean.

f) Ibilgailu bat zirkulaziorako edo erabiltzaile jakin batzuen zerbitzurako soilik erreserbatutako erreietan edo bide-zatietan aparkaturik dagoenean.

g) Ibilgailua ibilgetzea legez bidezkoa izan arren, horretarako leku egokirik ez dagoenean ibilgailuen edo pertsonen zirkulazioa oztopatu gabe.

2.- Lapurreten kasuan edo ibilgailua bere titularraren borondateaz kontra erabiltzeko beste moduren baten kasuan izan ezik, betiere behar bezala justifikatuta, ibilgailua bide publikotik kentzearen ondorioz sortzen diren gastuak titularraren kontura izango dira. Hark, ibilgailua itzuli baino lehen ordaindu beharko ditu gastuak, edo haien ordainketa bermatu, betiere bere esku duen errekurtsio egiteko eskubideari kalterik egin gabe, ez eta istripuaren, ibilgailuaren abandonuaren edo bide publikotik kentzeko arrazoi izan den arau-urratzearen erantzuleari jasanarazteko aukerari ere.

11. artikulua. Zirkulazioari eta zerbitzu publikoen funtzionamenduari arriskua eta nahasbide larriak dakarzkieten kasuak.

Ibilgailu bat aurreko artikuluan zehazturiko zirkunstantzietan dagoela joko da, eta, beraz, ibilgailua bide publikotik kentzea arrazoitua izango da, ondoko kasu hauetan, besteak beste:

- a) Gelditzea debekaturik dagoen puntu batean aparkaturik dagoenean.
- b) Bigarren ilaran eta gidaririk gabe aparkatua dagoenean.
- c) Alaka baten erpinetik edo kantoian angeluko muturretik kanpora ateratzen denean eta gainerako gidariak maniobra arriskutsuak egitera behartzen dituztenean.
- d) Oinezkoentzako pasabide seinalatu batean, etxadien bazterretan oinezkoak pasatzeko xedaturiko leku batean edo espaloian ezindu fisikoentzat dagoen beheagune batean aparkaturik dagoenean.
- e) Autoen pasabide bat osorik edo partzialki okupatzen duenean, hura erabiltzeko baimenduriko ordu-tartearen barruan.
- f) Zamaletarako erreserbaturiko gune batean gelditurik edo aparkaturik dagoenean hura erabiltzeko orduetan, bidaiariak edo salgaiak kargatzen edo deskargatzen aritu gabe.
- g) Garraio publikorako geraleku seinalatu eta mugatu batean aparkaturik dagoenean.
- h) Larrialdiko eta segurtasuneko zerbitzuentzat berariaz erreserbaturiko lekuetan aparkaturik dagoenean.
- i) Ikuskizun publikoetarako lokalen larrialdiko irteeren aurrean aparkaturik dagoenean, ikuskizunak gauzatzen diren orduetan.
- j) Ezindu fisikoentzat erreserbaturiko gune batean aparkaturik dagoenean.
- k) Osorik edo zati bat aparkaturik dagoenean espaloi, nasa, babesleku, pasealeku, arreta-gune edo zoruko marra-gune baten gainean, berariazko baimena ez badu behintzat.
- l) Bide publikoaren gainerako erabiltzaileei zirkulazioko seinaleak ikustea eragozten dionean.
- m) Biratzea eragozten duenean edota maniobra arriskutsuak egitera behartzen duenean hori egiteko.
- n) Bide publiko bateko zirkulazioa ikustea eragozten dienean beste batetik sartzen diren gidariei.

- o) Osorik edo partez eragozten duenean eraikin batera sartzea.
- p) Alkatearen Bandoz "lehentasuneko" deklaraturiko eta horrela seinalaturiko bide batean toki debekatuan aparkaturik dagoenean.
- q) Galtzadaren erdian aparkaturik dagoenean.
- r) Oinezkoentzako gunen batean aparkaturik dagoenean, horretarako seinalaturiko baldintzetatik kanpo, berariazko baimena ez badu behintzat.
- s) Aldi baterako debekaturiko gunen batean aparkaturik dagoenean, Ordenantza honen 5.1.c) artikulua araberaz.

12. artikulua. Titularrari jakinaraztea.

Bide publikoetatik ibilgailuak kentzen direnean titularra jakinaren gainean egon gabe, kentzen direnetik 48 ordu igarotzen badira inork haiek erreklamatzera agertu gabe, zirkunstantzia hori jakinaraziko zaio dagokion erregistroan titular ageri denari.

13. artikulua.- Ibilgailuak ibilgetuko diren kasuak.

1.- Udaltzainek ibilgailua ibilgetzeari ekin ahal izango diote, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legearen aginduak ez betetzearen ondorioz, hura erabiltzetik arrisku larriren bat etor litekeenean zirkulaziorako, pertsonentzat edo ondasunetarako. Neurri hori berehala altxatuko da neurria harrarazi duten zergatiak desagertuko direnean.

2.- Lehen atalak ezarritakoaren arabera jardute aldera, pertsonentzako arrisku larritzat joko da zirkulaziorako edo motozikleta kasko homologaturik gabe gidatzea. Gainera, zirkulaziorako arrisku larria etor litekeela joko da ondoko kasu hauetan:

- a) Gidariak akreditatzen ez badu, baduela administrazioaren baimena, horrelako ibilgailuak gidatzeko gaitzen duena.
- b) Akreditatzen ez badu, ibilgailuak baduela zirkulatzeko gaitasuna, ibilgailuaren zirkulatzeko baimena edota Ibilgailuen Ikuskatze Teknikoaren txartela aurkeztuz.
- c) Ibilgailuak galtzada hondatzen badu ez dituelako zirkulatzeko ezinbesteko diren elementuak, edo altuera, zabalera, pisu edo luzera gehiegizkoa edo desgokia duelako, edo karga behar bezala kokatua edo lotua ez duelako.

d) Gidariak odolean duen alkohol-tasa legez ezarritakoa baino handiagoa bada, edo substantzia estupefazianteen edo horien antzekoen efektupean badago.

3.- Orobat ibilgetu ahal izango da ibilgailua kasu hauetan:

a) Gidariak uko egiten badio alkohola, estupefazianteak edo antzeko substantziak antzemateko probak egiteari.

b) Ibilgailuei dagokien nahitaezko asegururik ez badauka.

c) Denbora-muga duten tokietan aparkatzeko baimena ematen duen titulua ez badauka edo emandako baimena gainditzen badu gidari identifikatzea lortu arte.

d) Ibilgailu-motaren arabera zilegi den gas, ke eta zaraten maila gainditzen badu ibilgailuak.

e) Ibilgailuari baimenik gabeko aldaketa garrantzitsuren bat egin bazaio, gidatzeko denbora-muga gainditu duela edo atsedenaldietarako ezarritako denboren 100eko 50etik gorako denborak gutxitu dituela ikusten bada, edo kontrol-tresnetan manipulazio posibleren bat egin izana agerian jartzen duten zantzuen ondorioz. Kasu horietan, xedatu ahal izango da ibilgailua eramatea, aldaketa hori edota takografoaren edo abiadura mugatzeko tresnen manipulazioa teknikoki egiaztatzeko xede soilarekin eta horretarako ezinbestekoa den denbora-bitartez; horrela bada, ikuskatze horren gastuak salatuaren kontura joango dira baldin eta arau-urratzea frogatzen bada.

f) Ibilgailua baimendutakoaz gain okupatzen bada, gidariarena ez beste leku baimenduen kopurua 100eko 50 gehituz.

4.- Halaber, ibilgailua ibilgetuko da Ordenantza honen 20. artikuluko 3. atalak xedatzen duenaren arabera, egoitza Espainiako lurraldean ez duen arau-urratzaileak uko egiten badio zehapenaren zenbatekoa ordaintzeari edo ordainketa bermatzeari.

14. artikulua.- Gastuak ordaintzea.

Ibilgailua ibilgetzearen edo bide publikotik kendu eta gordailura eramatearen ondorioz sortzen diren gastuak titularraren kontura joango dira, eta ordaindu egin beharko ditu, edo ordainduko dituela bermatu, neurri hori altxatzeko aurretiazko baldintza gisa, betiere defentsarako eskubideari kalterik egin gabe, eta Udalak neurri hori hartu izanaren ardura duen pertsonari gastuak jasanarazteko aukerari kalterik egin gabe.

IV. TITULUA.- ARAU-URRATZEAK, ZEHAPENAK ETA ZEHAPEN-PROZEDURA

1. ATALA.- ARAU-URRATZEAK ETA ZEHAPENAK

15. artikulua. – Arau-urratzeak eta zehapenak

1.- 339/1990 Legegintzako Errege-Dekretua garatuz Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean ZEO) arautzen duen 13/1992 Errege-Dekretuan ezarritakoaren aurkako ekintzak edo ez-egiteak, bai eta hura garatzen duten gainerako erregelamenduen aurkakoak ere, arau-urratze administratibotzat hartuko dira, eta ordenantza honetan eta aipatutako Legegintzako Testuek xedaturiko kasuetan, eran eta neurrian ezarriko zaizkie zehapenak Udal honek dituen eskumenen eremuaren barruan, non eta zehapen-prozeduran agerian jartzen ez den ofizioz jazartzeko moduko delitu eta hutsegitearen itxura daukan egintzaren bat, ezen, kasu horretan, Ministerio Fiskala jakinaren gainean jarriko da, badaezpada, akzio penala gauzatzea bidezko balitz ere.

Aurreko paragrafoan aipatzen den kasuan, prozedura administratiboa bideratzen jarraituko da ebazteko zain dagoen unera arte, eta orduan erabakiko da hura etetea.

Behin prozesu penala erruztatuak kondenatzeko epaiarekin burututakoan, eta prozedura administratiboa etetea erabakitakoan, prozedura hori erantzukizuneko deklaraziorik gabe artxibatuko da. Baldin eta epaia absolbitzekoa bada edota erantzukizuneko deklaraziorik gabe bukaratzen duen beste ebazpen baten bidez amaitzen bada eta gertakariaren inexistenzian funtsatua ez badago, prozedura administratiboan dagokion ebazpena emango da.

2.- Aurreko puntuan aipatutako arau-urratzeak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

3.- Arau-urratze bat egiteak ezinbestean beste bat edo batzuk egitea dakarrenean, egindako urratzerik larrienari dagokion zehapena soilik ezarri beharko da.

4.- Arau-urratze arinak 91 euro arteko isunekin zigortu ahal izango dira edo arau-urratzailea ohartaraziz, larriak 92 eurotik 301ra arteko isunekin, eta oso larriak 302 eurotik 602rako isunekin.

5.- Zehapen larri edo oso larrien kasuan, berekin badakarte gidatzeko baimena edo lizentzia aldi baterako kentzea, horren berri emango zaio Probintziako Trafikoko Buruzagitzari.

6.- Era berean, horren berri emango zaio dagokion administrazioari kasu hauetan: dagokion baimen administratiborik gabe gidatzea, matrikularik gabe edo Trafikoaren, Zirkulazioaren eta Ibilgailu Motordunen Legeak ezarritako baimenak gabe zirkulatzea, jabeak edo edukitzaileak epe barruan ibilgailua bere alde transferitzea eskatu gabe zirkulatzea, edo bide-segurtasuna bermatzen duten kondizio teknikoak betetzen ez dituen ibilgailu batekin zirkulatzea, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren gaineko arauak urratzea, eta orobat gidariak aztertzeko edo irakasteko zentroen jarduera arautzen dutenak eta bide-segurtasunari zuzenean eragiten dioten jarduera industrialen araubideari buruzkoak urratzea.

16. artikulua.- Aginpideak.

1.- Osoko Bilkurak Ordenantza honetan ezarritako isunen zenbatekoa eguneratu ahal izango du gorago ezarritako mugak kontuan hartuz.

2.- Alkateari edo zinegotzi eskuordeari dagokio arau-urratzeak arin, larri edo oso larri gisa kalifikatzea, 339/1990 Legegintzako Errege-Dekretuaren 65. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

3.- Halaber, berari dagokio zehapenak ezartzea zirkulazioko arauak urratzeagatik.

17. artikulua.- Arau-urratzeen gaineko erantzukizuna.

1.- Ordenantza honetan xedaturikoa urratzearen gaineko erantzukizuna arau-urratze hori osatzen duen gertakariaren egileari berari egokituko zaio zuzenean.

18 urtetik beherako batek egindako gertakarien erantzukizuna deklaritzen denean, harekin solidarioki erantzungo dute haren guraso, tutore, abegi-emaile edo zaintzaile legezko edo izatezkoek, ordena horretan, haiei ezarritako obligazioa ez betetzearen kariaz, berekin baitarama adingabeei egozten zaien arau-urratze administratiboa prebenitzeko betebeharra.

2.- Ibilgailuaren titularrak, horretarako agindeia behar bezala jaso ondoren, arau-urratzearen erantzule den gidaria identifikatu beharra dauka, eta dagokion prozedurako izapidean betebeharrak hori betetzen ez badu, hutsegite larriaren egiletzat joko da eta diru-zehapena ezarritako zaio, 301 euroko zenbatekoaz.

Termino beretan erantzungo du ibilgailuaren titularrak, ezinezkoa denean hark identifikatutako gidariari jakinaraztea, titular horri egotz dakioken zergatiagatik.

2. ATALA – ZEHAPEN-PROZEDURA

I. KAPITULUA Xedapen Orokorrak

18. artikulua - Prozeduraren gardentasuna

1.- Prozedura hurbilerraztasun iraunkorraren printzipioari jarraikiz garatuko da. Horretarako, interesdunek prozeduraren edozein unetan tramitazioaren egoeraren berri jakiteko eskubidea dute, bai eta hartan bildutako agiriak eskuratu ahal izan eta haien kopiak lortzeko eskubidea ere.

2.- Bideratzen den zehapen-prozedura bakoitza sistematikoki formalizatuko da, agiriak, lekukotasunak, jarduerak, egintza administratiboak, jakinarazpenak eta agertzen edo gauzatzen diren gainerako eginbideak elkarren jarraian eta ordenatuki txertatuz.

3.- Era horretan formalizatutako prozedura Udaltzaingo Arloaren erantzukizunpean zainduko da.

II. KAPITULUA Aurretizko jarduerak eta prozeduraren hasiera

19. artikulua – Aurretizko jarduerak

1.- Udaltzainek behar bezala araututako taloitegi bat izango dute dagozkien salaketak egiteko. Udaltzain Buruak kontrolatuko du taloitegia.

2.- Udaltzainek, aurkezten dizkieten salaketako orri guzti-guztiak bideratu beharko dituzte, eta ezingo dute orririk batere baliogabetu, baliogabetze horren zergatia jasotzen duen eta justifikatzen duen txosten baten bidez ez bada.

3.- Udaltzainek ez dute ezarritako zehapenen zenbatekoa ezin kasutan kobratuko, baizik eta Zerga-bilketa Zerbitzuaren bitartez kobratuko dira, salbu eta urratzaileak ohiko egoitza Espainiako lurraldean duela egiaztatzen ez duenean. Kasu honetan, udaltzain salatzaileak behin-behinekotzat finkatuko du isunaren diru-kopurua eta, zenbatekoa sartzan ez badu edo haren ordainketa zuzenbidean onartutako edozein bidez bermatzen ez badu, ibilgailua ibilgetu egingo zaio, Udalak horretarako dituen gordailuetara eramateko.

20. artikulua.- Hasteko era

1.- Zehapen-prozedura ofizioz hasiko du Alkateak, arau-urratze izan daitezkeen gertakarien zuzeneko berri duen edozein pertsonak edo trafikoaren zainketaz eta segurtasunaz arduratzen diren Agintaritzako agenteek formulatu ahal izango duten salaketa jasotakoan.

2.- 339/1990 Legegintzako Errege-Dekretuak onetsitako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legean eta arlo horretan dagoen gainerako araudian agindutakoaren aurkako ekintza edo ezegiteen ondorioz arau-urratzeak egiten direnean, udaltzainak gertatutakoak salatuko ditu, ustezko urratzea egin duen ibilgailuaren identifikazioa zehaztuz, bai eta, ezaguna izanez gero, salatuaren nortasuna eta gertakariaren gorabeheren laburpen ahalik eta argiena ere, lekua, data eta ordua adieraziz. Gainera, salaketa momentuan ezin badu jakinarazi, salaketa-aktan adierazi beharko du, jakinarazi ez izanaren zergatiak. Soilik halakorik egin badezake, arau-urratzeak izan lezakeen kalifikazioa eta Udalak arau-urratzeei eta zehapenei buruz onetsitako taularen arabera aplikatu lekizkiokeen zehapenak zehaztuko ditu.

3.- Arau-urratzeei dagozkien salaketako orriak ale bitan egingo dira. Bat, ahal izango balitz, momentuan emango zaio salaketa ezarri zaionari, ekintza horrek espedientean jasota geratu behar duelarik, eta, bestea, Udaltzaingoko administrazio Sailera bidaliko da, espedientea abiaraz dezan. Hori Udaltzain Buruari jakinarazi beharko zaio, eta horrek gauzatuko du haren instrukzioa.

4.- Gidaria bertan ez dagoelako edo bestelako zirkunstantzia batzuegatik aurreko puntuko jakinarazpena egiterik ez badago, salaketa Udaltzaingoko administrazio Sailari emango zaio, gorago ezarri den eran jardun dezan. Instruktoarek Trafiko Erregistroan ibilgailuaren titular gisa ageri den pertsonari jakinaraziko dio salaketa, ordenantza honen 23. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

5.- Aurreko puntuan adierazitako jakinarazpenean agerraraziko da ezen, ibilgailuaren titularra arau-urratzea gertatu zen unean gidatzen ari zena ez bazen, hamabost eguneko epean Udalarari arau-urratzailearen nortasuna jakinarazi behar diola, ohartaraziz ezen obligazio hori ez betetzea hutsegite larritzat zigor daitekeela. Aldi berean ohartaraziko zaio epe horretan bertan prozeduraren hasieraren edukiari buruzko alegaziorik egiten ez badu, hasiera hori ebazpenerako proposamentzat hartu ahal izango dela eta, beraz, Alkateari bideratuko zaiola, hark dagokion zehapena ezar dezan.

21. artikulua.- Salaketen betebeharrak

1.- Agintaritzako agenteek egindako salaketak, aurkako frogarik ezean, aski izango dira salatutako gertakarien egiazkotasuna ziurtatzeari dagokionez.

2.- Borondatezko salaketak, udaltzainen aurrean ahoz edo Alkatetzari idatziz zuzenduz egin ahal izango dira, datuak eta aurreko artikuluan zehazten diren zirkunstantziak jasoz.

Salaketa udaltzainen aurrean aurkezten bada, haiek beteko dute arauzko salaketarako orria, eta hartan jasoko dute, aipatutako 21. artikuluan zehaztutako baldintzez gain, ea bere buruz egiaztatu zuen ala ez arau-urratze salatua, bai eta partikular salatzailearen izena eta helbidea, aurreko artikuluan zehazten den eran jardunez.

22. artikulua - Salaketa jakinaraztea

Ondoko eran gauzatuko da:

1.- Urratzea egin zen unean jakinarazpen pertsonala egitea ezinezkoa izan bazen, Trafiko Erregistroan ageri den egoitzan banan-banan jakinarazteko ahaleginak egingo dira, udal artxiboetan titularrak deklaraturako beste egoitzaren bat agertzen denean izan ezik, kasu honetan azken hau erabiliko baita.

2.- Lehen ahaleginean jakinarazpena ematerik badago, hartu izanaren adierazpen txartelean emate-data, hartzailearen sinadura eta, titularrak bestelakoa bada, bere nortasuna agerraraziko dira.

Eman izana egiaztatzen duen txartela ahal bezain laster itzuli beharko zaio Udalari, tratamendu informatiko puntuala egin ahal izatearren.

3.- Jakinarazteko lehen ahaleginean entregatzerik ez badago, bigarren ahalegin bat egingo da beste egun batean eta ordu ezberdinean. Bigarren ahalegin honek emaitza positiborik baldin badu, aurreko atalean adierazitako zirkunstantziak agerraraziko dira hartu izanaren adierazpen txartelean, eta Udalari itzuliko zaio.

4.- Bigarren ahaleginak ere arrakastarik lortzen ez badu, bizilekuko postontzian utziko da agiria, eta bertan adieraziko da jakinarazpena bizilekuan bertan egiteko hainbat ahalegin egin eta arrakastarik lortu ez denez gero, ediktu bidez argitaratuko direla Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta haren azken bizileku ezaguneko Udaleko iragarki-oholean.

5.- Prozeduren irauteko gehieneko epearen barruan jakinarazteko obligazioa betetzat jotzeko ondoretarako bakarrik, aski izango da jakinarazteko ahalegina behar bezala egiaztatzea, 30/92 Legeko 58.4 artikulua araberan.

III.KAPITULUA. – Zehapen-Prozeduraren Instrukzioa

23. artikulua.- Salaketan tramitazioa

1.- Udaltzaingoko administrazioko bulegoetan salaketa jasotakoan, Udaltzain Buruak gertakariak kalifikatzeari eta isunaren maila finkatzeari edota udaltzain salatzaileak hartan ezarritako kalifikazioa eta isuna egiaztatzeari ekingo dio.

2.- Jarraian, organo instruktorea den aldetik, prozedura abiatzea edo bestela, espedientea artxibatzea proposatuko du, salaketako orriak haren baliogabetzea dakarren akatsen bat daukan kasuetan.

3.- Instruktoerek aipatutako salaketari bide emango dion edo Alkatetzari proposatuko dion arau-urratzea ez dagoela zehazten duen erabakia, salaketa ezarritako gertakizunei salaketa ez dagokienean, edo salaketaren desagokitasuna zehazten duen erabakia, salaketaren egilea identifikatu ezin daitekeenean.

4.- Organo eskudunek aipatutako gertaerak egiaztatzeke duten aukerari kalterik egin gabe, izenik gabeko salaketak artxibatu egingo dira, honi buruzko izapide gehiago egiteko beharrik gabe.

24. artikulua - Organo Instruktoorea

Zehapen-espedientearen organo instruktorea Udaltzaingo Arloa izango da, eta Udaltzain Burua izango da instruktorea.

25. artikulua – Alegazioak

1.- Bide-segurtasunari buruzko Legearen 79. artikuluan, 320/1994 Errege-Dekretuko 12. artikuluan eta abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege-Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoari jarraiki, salatuak egoki deritzen alegazioak eta agiriak aurkeztu ahal izango ditu, eta, hala badagokio, bidezkoz jotzen dituen frogak proposatu ahal izango ditu, hamabost eguneko epean, Ordenantza honen 23. artikulua xedatuaren arabera egindako salaketa jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita.

Izapide horretan ibilgailuaren titularrak gidari arau-urratzailearen nortasuna jakinarazten badu, zehapen-prozedura hari zuzenduko zaio, eta salaketa modu berean jakinaraziko zaio.

2.- Salatuaren alegazioei dagokienez, salbu eta datu berririk edo salatzaileak hasieran agerrarazitakoez bestelakorik ez badakarte, instruktoreak hari helaraziko dizkio, haiei buruzko txostena egin dezan, gehienez ere 15 eguneko epean. Era berean, gertakariak aztertzeko beharrezkotzat jotzen dituen txosten eta datu guztiak eskatuko ditu.

26. artikulua.- Jakinarazpena jabea ez den beste pertsona bati egiten zaionean.

1.- Salaketa jakinarazi zaionean Gidarien eta Trafikoko Arau-urratzaileen Erregistroan titular ageri den pertsonari eta hark alegatzen duenean bera ez zela gidaria arau-urratzea gertaturiko unean eta gainera egiaztatzen duenean une hartan ez zela ibilgailuaren jabea, alegazioa onartu egingo da, eta espedientea salaketa jakinarazi zeneko unera ekarriko da atzera.

2.- Atzera ekarri aurreko jardunek eten egingo dute preskripzio epea, Bide-segurtasunaren Legeak 81. artikuluan ezarritakoaren arabera, arau-urratzailearen nortasuna jakitera bideratuta baitaude.

27. artikulua.- Prozedura gidaria ez den beste pertsona baten aurka jarraitzen denean.

Salaketa Trafiko Erregistroan titular ageri denari jakinarazi ondoren (berak bere titulartasunari eragozpenik jarri ez diola), gerora alegatzen bada bera ez zela gidaria arau-urratzearen unean, honela jardungo da:

a) Egiaztapena ukaezina bada eta gidariaren nortasuna aditzera ematen bada, errekurtsioa baietsi egingo da, eta salaketa urratzaileari jakinaraziko zaio.

b) Aurreko zirkunstantziak gertatzen ez badira, errekurtsioa ezetsi egingo da.

28. artikulua.- Interesdunak bertan ez zela alegatzen duenean.

1.- Interesdunak alegatu eta frogatzen duenean bera ez zegoela arau-urratzearen lekuan hura gertatu zen unean, salatzaileari helaraziko zaio, dagokion txostena egin dezan.

2.- Txostena egindakoan, Ordenantza honen 32.3 artikulua ezarritakoari jarraituko zaio, entzunaldiaren izapidea abiatzea erabakitzeko.

29. artikulua.- Froga.

1.- Alegazioak jasotakoan, baldin eta ezinbestekoa bada gertakariak ikertzeko eta kalifikatzeko edota egon litezkeen erantzukizunak finkatzeko, instruktoreak ebatziko du frogaldi bat irekitzea, hogeita hamar egun baino

gehiagokoa eta hamar egun baino gutxiagokoa izango ez den epe batez, egokiak izan daitezkeen guztiak burutu ahal daitezzen.

2.- Interesdunei jakinaraziko zaien erabaki horretan, haiek frogarik proposatuz gero, froga horiek egiteari uko egin ahal izango zaio, betiere era arrazoituta, baldin eta froga horiek bidezkoak ez badira gertakariekin duten loturak ezin alda baitezake ebazpena ustezko erantzulearen alde.

3.- Instruktoareak bidezkozat jotzen dituen frogak egiteko, jakinarazpena behar adinako aurrerapenaz egingo zaio interesdunari, eta, hala badagokio, lagunduko dioten teknikariak izenda ditzakeela ohartaraziko zaio.

4.- Interesdunaren eskariz Administrazioak jasan behar ez dituen gastuak dakartzaten frogak egin behar direnean, Administrazioak gastu horien aurrerakina ordain diezaion eskatu ahal izango dio, froga burututakoan gauzatuko den behin betiko likidazioaren zain.

5.- Froga organo administratibo edo entitate publiko batek txostena egitean datzanean eta tramiterako onartzen denean, 10 eguneko epean burutuko da, xedapenen batek beste epe luzeagoren bat baimendu ezean. Txosten horiek nahitaezkozat hartuko dira, eta prozedura ebazteko izaera erabakigarria dutela ulertu ahal izango da. Kasu horretan, hurrengo tramiteen epea eten ahal izango da.

Txostena beste administrazio batek egin behar bada eta epea hura eman gabe igarotzen bada, jarduerak aurrera jarraitu ahal izango dute. Epez kanpo emandako txostena alde batera utzi ahal izango da dagokion ebazpena hartzerakoan.

30. artikulua.- Entzunaldia.

1.- Baldin eta, prozeduraren instrukzioaren ondorioz, gertakarien hasierako zehaztapena, haien kalifikazioa, ezar litezkeen zehapenak edo zehapena ezartzeko modukoak izan litezkeen erantzukizunak aldatzen badira, eta, edozein kasutan ere, frogako aldirik izan bada, salatuari entzunaldirako aukera emango zaio 15 eguneko epean.

2.- Entzunaldiaren izapidea alde batera utzi ahal izango da hasierako salaketan jasotakoez beste gertakaririk, alegaziorik eta frogarik prozeduran ageri ez bada eta ebazpenean kontuan hartu ez bada.

3.- Agente salatzaileak eginiko txostena, (bertan salaketaren edukia berresten dela), bere hasierako erabakia aldatu gabe eta beste hautematerik

gehitu gabe, ez da elementu berrizat hartua izango entzunaldiaren izapideari dagozkion ondoreetarako.

31. artikulua.- Ebazpen proposamena

1.- Behin espedientearen instrukzioa burututakoan, eta interesdunari entzunaldirako aukera emandakoan, salbu eta hori beharrezkoa ez bada aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera, instruktoreak ebazpen proposamena formulatuko du; bertan gertakariak eta haien legezko kalifikazio zehatza zehaztuko ditu, haiek osatzen duten arau-urratzea eta erantzule gertatzen den pertsona zehaztuko ditu, eta hari ezartzeko proposatzen duen zehapena zehaztuko du; edo, bestela, arau-urratzearen edo erantzukizunaren inexistentzia deklaratzeko proposatuko du.

IV. KAPITULUA.- Amaiera

32. artikulua.- Ebazpena.

1.- Alkateak, edo hala denean, arloko zinegotzi eskudunak, emango du zehapen-ebazpena, prozedura hasi eta urtebeteko epean, eta interesdunek azaldutako arazo guztiak erabakiko ditu, bai eta prozeduratik eratorritako bestelakoak ere.

Hala eta guztiz ere, ebazteko eskudun den organoak arau-urratzea ebazteko proposamenean zehaztutakoa baino larriagoa dela irizten badio, erruduntzat jotakoari jakinaraziko dio, komenigarritzat jotzen dituen alegazio guztiak aurkez ditzan, eta hamabost eguneko epea emango zaio horretarako.

2.- Baldin eta prozedura abiatu zenetik urtebete igaro bada eta zehapen-ebazpenik izan ez bada, hura iraungiko da, eta jardunak artxibatzeari ekingo zaio, edozein interesdunek hala eskaturik edo ebazpena emateko eskua duen organoak berak ofizioz jardunez.

Prozedura jurisdikzio penalak gertakarien berri izanaren zergatiaz geldiarazten denean eta, gidatzeko baimen administratiboaren etenaldia substantziatzeko, espedienteak lekuz aldatu behar denean, iraungitzeko epea eten egingo da eta berriro abiatuko, urtebete arte geratzen den denboraz, behin dagokion ebazpen judizialak edo administratiboak irmotasuna hartu duenean.

33. artikulua.- Isunaren ordainketa.

1.- Arau-urratzearen egunetik eta zehapena ezartzen den bitartean, %30eko deskontuarekin ordaindu ahal izango da salaketaren jakinarazpenean adierazitako zenbatekoa.

3.- Zehapena ezartzen denetik hasi eta hura jakinarazi ondorengo hamabost laneguneko epera arte, ordaindu beharrekoa zehapeneko zenbateko nominala izango da.

4.- Aurreko atalean ezarritako dirua sartzeko epea amaitu bada baina isuna ordaindu ez bada, ordainaraztea premiamendu bidez gauzatuko da, isunaren zenbateko nominalaren gainean %20ko gainkargua likidatuz.

34. artikulua.- Isunaren preskripzioa.

1.- Zirkulazioko arau-urratzeek preskribitzeko epea hiru hilabetekoa izango da arau-urratze arinetarako, sei hilabetekoa arau-urratze larrietarako, eta urtebetekoa oso arau-urratze larrietarako.

Preskripzio epea hutsegitea gertatutako egunetik aurrera zenbatzen da. Edozein jarduera administratibok preskripzioa eten egingo du baldin eta salatuak haren berri badu edo beraren identitatea edo bizilekua jakitera bideratua bada eta abiaburu izan duen bulegoaz kanpoko proiektioarekin burutzen bada. Orobat etengo da baldin eta Ordenantza honen 33. artikulua ezarritakoaren arabera jakinarazten bada. Preskripzioa berriro abiatuko da prozedura hilabetetik gorako aldian geldiarazten bada salatuari egotz ez dakiokeen zergatiren batengatik.

2.- Zehapenak preskribitzeko epea urtebetekoa izango da, zehapena ezartzen duen ebazpenak irmotasuna hartzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Preskripzioa eten egingo da exekuzioko prozedura abiatzean, betiere interesdunak horren berri izanik, eta berriro igaroko da epea baldin eta prozedura hilabetetik gorako aldian gelditurik badago arau-urratzaileari egotz ez dakiokeen zergatiren batengatik.

V. KAPITULUA.- Errekurtsuak

35. artikulua.- Errekurtsuak.

1.- Alkateak, edo hala denean, arloko zinegotzi eskudunak, ezarritako zehapenen kasuan, errekurtsua jarri ahal izango dute Administrazioarekiko Auzien Bilboko Epaitegian, isunaren jakinarazpena jasotzen duten egunaren biharamunetik zenbatzen hasi eta bi hilabeteko epean.

2.- Hala eta guztiz ere, lehenago eta nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango dute hilabeteko epean.

3.- Errekurtsuaren gaineko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabetekoa izango da. Epe hori igaro ondoren, ezetsizat jo ahal izango da, eta Administrazioarekiko Auzien Epaitegian errekurtsua aurkeztu ahal izango da 6 hilabeteko epean.

4.- Udaleko diruzainak emandako premiamendu probidentziaren aurka, errekurtsua aurkeztu ahal izango dio Alkateari, jakinarazpena jaso duenetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean.

5.- Premiamendu probidentziaren aurka aurkeztutako errekurtsuen ebazpena Udaleko Zerga-bilketa Kudeatzeko Ordenantza Orokorrean definitutako irizpideei lotuko zaie.

6.- Xedapenen batek aurkakoa ezarri ezean, edozein errekurtsu jartzeak ez du aurka egindako egintza betearaztea etengo, Alkateak hala xedatu ezean betearazte horrek kalte konponezinak edo konpongaitzak eragin litzakeenean edo hurrengo artikuluan ezarritako deuseztasuneko kausen batean oinarritzen direnean.

7.- Aurka egindako egintza baliogabetutzat joko da baldin eta baliogabetzeko eskaera jaso denetik hogeita hamar egun igaro ondoren hari buruzko berariazko ebazpenik eman ez bada.

36. artikulua.- Egintzen berrikuspena.

1.- Ofizioz berrikusteko prozedura izenekoak edozein unetan abiarazi ahal izango dira, norbere ekimenez edo interesdunaren eskariz, eta jarraian adierazitako egintzen deuseztasuna ofizioz deklaratu ahal izango da, administrazioako bideari amaiera eman badiote edo haien aurka administrazioarekiko errekurtsua epearen barruan jarri ez bada, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62. artikulua araber:

a) Konstituzio-babesa izan lezaketen eskubide eta askatasunen funtsezko edukia kaltetzen dutenak.

b) Eskudun ez den organoak emandakoak.

c) Ezinezko edukia daukatenak.

d) Arau-hauste penalik dakartenak edo honen ondorioz ematen direnak.

e) Legez ezarritako prozedura edo organo kolegiatuen borondatea osatzeko funtsezko erregelak biltzen dituzten arauak erabat eta guztiz alde batera utziz emandakoak.

2.- Hala eta guztiz ere, egintzak bere xedea lortzeko ezinbesteko beharkizun formalak ez dituenen edo interesdunen defentsa-gabezia dakarrenean soilik zehaztuko du formazko akatsak deuseztagarritasuna.

3.- Era berean, administrazioko jardunak haietarako ezarritako denboratik kanpo egiteak, egintza baliogabetu ahal izatea ekarriko du soilik hala agintzen duenean epearen izaerak.

4.- Egintza baten edo bere zati baten deuseztasun edo deuseztagarritasunak ez du prozedurako hurrengoena edo lehenbizikoaren independente diren zatiena ekarriko.

5.- Ofizioz berrikusteko prozedura hasita, ebazteko eskudun den organoak egintza betearaztea baliogabetu ahal izango du honek kalte konponezinak edo konpongaitzak sor litzakeenean.

6.- Halaber, bere egintzetan dauden errakuntza materialak, egitatezkoak edo aritmetikoak ere edozein unetan zuzendu ahal izango ditu, ofizioz nahiz alderdi baten eskariz.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

1.- 1992ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuraren bileran onetsi zen eta gaur egun indarrean dagoen Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Udal Ordenantza indargabetua geratu da.

AZKEN XEDAPENA

1.- Alkateari baimena eman zaio Ordenantza hau garatu eta aplikatzeko behar beste instrukzio eta xedapen emateko.

2.- Indargabetu edo aldatzen ez den bitartean hala jarraituko du Ordenantza honek.

